

Naiara Perez Legorburu

B maila • Aipamena



Orain 16 urte, 2002an, Ordizian eman nion hasiera bizitzari. Amak sarritan esan dit jaiotzetik dudala irakurzaletasuna zainetan; egunerokotasuna hitz samurretan politago eta, batez ere, argitsuago ikusten baita. Beste urte batzuetan ere parte hartu izan dut lehiaketa honetan eta aurtengoan aipamena jaso izanak izugarrizko indarra eman dit hitzen munduan sakonago jarduteko eta idazteari ez uzteko. Amildegiaeren ondoan, maldan behera erori gabe idazten jakin behar da, xarma galdu gabe eta isiltasunean erori gabe; nork daki?

AMETS GAIZTOEK ASKOTAN EGIK XUXURLATZEN DITUZTE

Egunerokotasuna bihurtu den errutina jarraituz, beste behin ere Adur goizean goiz esnatu da, zazpirak aldera; dena egunero bezala zihoan gauza bat izan ezik; gaur goizean amak esnatu beharrean, aitak esnatu du, baina gehiegizko garrantziarik eman gabe jarraitu du.

Zuzenean bainugelara joan da barnean sartu ditu bera bere arima eta itzala aspalditik ez baitzihozen batera, atea itxi du krirketa eta guzti; eguna behar bezala joateko ezinbestekoa duen dutxa beroa hartu du gorputza esnatzeko, dutxa azpian igarotako minutuak segundu modura igaro zaizkio eta ohartu baina lehen ateratzeko ordua zen. Gaur berak eta aitak soilik erabiltzen duten bainugelan normalean baino apaintzeko gauza gehiago dago; horrek zer esan nahi duen edo horren zergatia jakin gabe, arropa jantzi eta behera jaitsi da.

Praka motz eta tirantedun kamiseta bat jantzi du, atzo telebistan gaurko eguna oso beroa izango zela aurreikusi baitzuten. Sukaldera joan eta berriro ere dena alderantziz dago; ama aitaren ordeaz lasai-lasai silan eserita dago, egunkaria eskuetan hartuta, kafe bat hartzen; aita, berriaz, mantala jantzita denentzat gosaria prestatzen ari da.

Sukaldera sartu eta amaren ondoan eseri da bere gosariaren zain.

-Egun on!- Esan du ia oihukatuz.

-Iepa!- Esan dio amak; bere tonu hotzak erabat harrituta utzi du, baina ez du ezertxo ere esan.

-Kaixo seme!- Esan dio aitak eta ustekabeen hartu duen masaileko muxu goxo bat jaso du.-Zer moduz hasi da eguna? Ene! A ze itxura duzun! Arropa gehiago jarri beharko zenuke; horrela jantzita edonor berotu nahian zabiltzala dirudi; egin ieza dazu fabore bat eta jantzi lepoa estaltzen dizun beste edozein kamiseta.- Zer esan jakin gabe, kamiseta aldatzera joan da.

Itzultzean, aurreikusi gabe zegoen arropa aldaketa dela-eta, ia arnastu gabe gosaldia behar izan du eta bukatzean altxa eta joan egiten da, baina orduan gurasoak ahopeka hitz egiten entzun ditu:-Ai, ama! Gaur ere berdin! edalontzia mahai gainean! Noiz ikasiko du gauzak jasotzen? Ez du inolako interesik jartzen etxearen garbiketan.-Esaten du aitak kezka tonuz.

-Arrazoi! Horrela jarraituz gero, inongo emakumek ez du berarekin ezkondu nahiko; emakumeoi mutil lasaiak eta garbiketan trebeak gustatzen zaizkigu, eta argi dago bera ez dela horrelakoa.- Erantzun dio amak, erabat esaten duenaz ziur.

Adur harrituta gelditu da; askotan entzun ditu horrelako elkarrizketak bere arrebarekin, baina bera dela protagonista? Sekula!

Gaur goizeko gauzak alde batera utziz, motxila jantzi eta irtetera doala, aita etorri zaio agurtzera; muxu bat eman dio eta kontuz ibiltzeko errepikatu dio hiru bat aldiz, kale ilunetan ez ibiltzeko eta emakume ezezagunei jaramonik ez egiteko.

Kalera irten eta Ikastolara bidean bakarrik doala emakumez betetako kotxe batek abiadura jaitsi eta bere ondoan ibiltzen hasi da, leihatila jaitsi eta oihu egin diote:

-Guapo! Gure kotxera igo nahi? Zu bezalako ederrentzat beti dugu tokitxo bat.-Esaten dio gidariak.

-A ze ipurdia! Alde guztietatik emango nizuke!-Esaten dio atzean eserita doanak.

Honelako beste hainbat itsusikeri entzun ostean, berriro ere abiadura handitu eta joan egin dira; Adur erabat minduta eta beldurtuta sentitu da, baina, horrez gain, objektu bat izango balitz bezala hitz egingo baliote bezala.

Une hartan berak duela bi hilabete bere ikasgelako neska bati esandako "piropoak" gogoratu ditu: Eder hori!, A ze ipurdia!... Bere garaian piropoak iruditzen zitzaizkion, erabat gozoak eta inongo alde txarrik gabe, baina, orain, bere azalean sentitu ondoren, ez da batere gustura sentitzen bere buruarekin; ikastolara iristean horrelakoak esan dizkien emakume guztiei barkamena eskatuko diela erabaki du.

Aurrera jarraitu eta bere parean taberna txiki bat ikusi du emakumez bor-bor; paretik pasatzean, denek txistu egiten diote, baina berak lurrera begiratu eta aurrera egin besterik ez du egiten. Bertan eserita zegoen neska bat altxatu eta atzetik duela ohartzen da, neska ilehori bat, argala eta altua, beldurrik ez duen horietakoa. Pausua arintzen du, erabat beldurtuta dago; ez daki zer egin; lehenengo aurkitzen duen tabernara sartu eta laguntza eskatzen du; bertan denek lagundu nahi diote, baina lehenik eta behin goitik behera begiratzen diote; halako batean atzeko mahaian eserita dagoen gizon batek hauxe esaten du:-Horrela jantzita, zer nahi duzu? Edonori etortzen zaio horrelakoetarako gogo. Emakume horrena naturala da, bere senak bultzatzen du zu bortxatzera; ezin du ezer egin kontran.

Hori entzutean, bertan inongo laguntzarik ez duela aurkituko pentsatu eta korrika ihes egin du; bitartean pentsamendu batzuk etortzen zaizkio burura "Hau emakumeek guretzat egin duten mendeku moduko bat, izan behar da, edo ez dakit bestela... Egia esan, inoiz ez nuen imajinatu horrelakoa zenik hauen zapalkuntza... Zein ezberdina den zerbait azalean sentitzea edo urrutitik begiratzea..."

Aurrera jarraitu du bost minutuz; bat-batean atzera begiratzea bururatu zaio; atzera begiratu eta bertan zen lehengo neska berbera, intentzio berdinekin; Adur bizkortzen hasi da; dirudienez emakumea bizkorragoa da; 20 segundo igaro baino lehen Adurrek esku bat sentitu du sorbaldan, aurrera egiten uzten ez dion indar bat; atzera begiratu eta bertan zuen emakumea.

Bultzaka, pareta batera eraman du; beldurraren beldurrez, Adurrek ahotsa ere galdu du; emakumea praketako botoia askatzen hasi zaio; Adur kilimak sentitzen hasi da, ez, ez dira kilimak, zera da...

Bat-batean, begiak ireki eta bertan zuen bere pare-parean bere ama, beti bezain goxo eta maitagarri. Adur izerditan blai zegoen. Ametsgaizto bat izan zen dena!

Amak erabat kezkatuta zer gertatzen zaion galdetu dio, Adurrek ez dela ezer esan eta beste edozein hitzek baino gehiago balio duten besarkada goxo eta indartsu bat eman dio, amak gogor itzuli dio besarkada.

-Ea, dutxatu eta jantzi; ni beheran egongo naiz zure eta zure aitaren gosariak prestatzen.-Esan dio amak.

-Ez, ama; zu lasai eser zaitez; nik prestatuko dut gosaria eta nik garbituko ditut ontziak.- Erantzun dio semeak duela gutxi izan duen ametsgaiztoa burura etortzean. Amak azken muxua eman dio logelatik irten baino lehen eta Adur prestatzen hasi da.

Ikastolara bidean bere aurrean oinez doan neskari kotxetik gizon kuadrila batek esaten dizkion itsusikeriak entzun ditu; korrika gerturatu eta gizonei alde egiteko esan die neskari lasai egoteko esan eta bere ondoan oinez joan da.

Aurreraxeago gozoki denda paretik igarotzean mutil batek neska bat nola ehutsi eta lurrera botatzen duen ikusi du; inguruan dagoen jendeak beldurtuta, ez du ezer egiten; berak aurrera pausu bat eman du, mutilarengana joan eta gelditzeko esan dio; bere ondoren berarekin doan neska gerturatu da, ondoren inguruko beste neska bat, beste gizon bat... Honela gizonezkoak inolako irteerarik ikusi ez eta korrika ihes egiten duen arte. Neska gajoak etengabe eman dizkie eskerrak denei.

Adurrek ez du sekula neskari ukituko bere baimenik gabe, ez dio inoiz neska bati ez inori inongo hitz itsusirik esango eta, batez ere, ez da gehiago inongo arlotan neska bat baino gehiago sentituko. Bere bart gaueko ametsgaiztoa beste generokoen, hau da, emakumeen eguneroko bizia baita.